



Arartekoaren ebazpena, 2007ko ekainaren 25ekoa. Horren bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari gomendatzen zaio beharrezko neurriak har ditzala oposizio fasea puntuatu eta laborategiko goi mailako teknikarien lan burtsako hautagaien sailkapen ordena zehazte aldera kalifikazio epaimahaiak ezarritako arauak berrikusi ahal izateko, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen mesedetan.

Aurrekariak

1. Biztanle bat erakunde honi zuzendu zitzaion laborategiko goi mailako teknikarien lan burtsa sortzeko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (aurreratzean HAEE) antolatu zuen eta bera parte hartzen ari zen hautapen prozesuan esku har zezan eskatzeko.

Bere kexaren arrazoiak azaltzeko bidali zuen idazkian, beste zenbait gogoetaz gain, adierazi zuen ez zegoela ados egin zen oposizio ariketa zuzentzeko kalifikazio epaimahaiak erabili zituen irizpideekin, horien artean, zenbait muga ezartzea frogatu eta burtsan sartzeko beharrezko ezagutza-maila zehazte aldera, eta puntuazioak bihurtzeko formula aplikatzea.

Interesdunaren iritziz, ez ziren errespetatzen ari ez deialdiko oinarriak ez berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, hautapen organoak hartutako irizpideetatik egiaztatutako ezagutzak modu proportzionalen baloratzen ez zituen hautagaien ordena ondorioztatzen baitzen; ordena horrek oposizioa osatzen zuten hiru bloke baztertailetatik bakararra (Kimika eta Mikrobiologiako arloei zegokiena) gainditu zutenei egiten zien mesede eta biak gainditu zituztenak kaltetzen zituen eta, gainera, oposiziotik guztientzat bakararra eta komuna ez zen balioa ematen zion erantzun zuzen bakoitzari.

2. Kexa aurkeztuta, prozeduraren baitan egindako jardunak aztertu genituen eta egiaztatu ahal izan genuen, deialdiko oinarri berezien arabera, hautapen prozesuak lehenik eta behin oposizio fasea zuela eta, ondoren, lehiaketa-fasea. Lehenengoan ariketa teoriko-praktikoa egin behar zen; alegia, hautazko erantzunak zituzten ehun galderaz (eta erreserban utzitako beste hamarrez)



osatutako galdera-sorta bete. Gehienez 50 puntu lortu ahal izango ziren eta, hori gaindituztat emateko, gutxienez 25 behar ziren.

Proba egin ondoren, behin-behineko emaitzak argitaratu ziren. Zerrendan hautagai bakoitzaren alboan “gai” edo “ez gai” adierazi zen arloetako bakoitzerako, puntuatzeko bi modalitatetan oinarrituta; hots, zuzeneko puntuazioa eta bukaerako puntuazioa.

Zehazki, esku hartzeko eskatu zigun hautagaia “gaitzat” jo zen arlo guztietan, zuzeneko bere puntuazioa 52,33 puntukoa izan zen eta bukaerakoa, berriz, 35,70ekoa.

Behin-behineko emaitzekin batera, kalifikazio epaimahaiak zuzenketa-irizpideak ezagutarazi zituen; hau da, zuzeneko puntuaziotik abiatuta, oinarriekin bat etorritz prozesua gaindituztat ematen duen 25 eta 50 puntu arteko eskalara egokitzen den bukaerako puntuazioa kalkulatu ahal izateko mugak eta araua zehaztu zituen.

3. Hasierako azterketaren emaitza gisa ikusi ahal izan genuen, itxura guztien arabera, bukaerako puntuazioa kalkulatzeko erabilitako prozedura puntuazioen progresioa eragiten ari zela eta, horren ondorioz, merezimenduei emandako balioak gehituta, hautagaiek lortutako zuzeneko puntuazioak eman beharko lukeenarekin bat ez datorren lehentasun ordena sortzen ari zela. Uste horretan oinarrituta, HAEERI zuzendu gintzaizkion, erabilitako arauen eta formulen eragina ebalua zezan eta horren guztiaren inguruko bere balorazioa eta ondorioa helaraz ziezazkigun.

Eskaera horri erantzunez, bi txosten jaso genituen kalifikazio epaimahaiaren eskutik. Horietan hautapen prozesuaren diseinua deskribatzen da, kalifikazio organoaren jardunen bilakaera aipatzen da eta hartutako erabakiak eragin zituzten arrazoiak azaltzen dira.

Agiri horietan jasotzen diren arrazoibideetatik, zuzeneko puntuazioa kalkulatzeko prozedurari dagokiona aztertzen hasi behar dugu. Horri dagokionez, administrazioak adierazi zuen ariketa teoriko-praktikoa 100 galderaz osatuta egon zela, hautapen prozesuaren diseinuak gehienez 50 puntu emango zirela eta, hori gaindituztat jotzeko, gutxienez 25 lortu behar zirela adierazi arren. Deialdiaren oinarriek ahalmena ematen zioten kalifikazio



epaimahaiari gutxieneko nota lortzeko beharrezko ezagutza-maila zehazteko; eginkizun hori oposiziogileen nortasuna ezagutu aurretik gauzatu behar zuen.

Administrazioak jakinarazi zuen, ariketak zuzendu eta okerreko erantzunengatiko zigorra aplikatu ondoren, kalifikazio epaimahaiak oposiziogileetako bakoitzaren zuzeneko puntuazioa lortzen zuela. Horrela, puntuazioak bi galdera-blokeetan (mikrobiologia eta kimikako arloei dagozkienetan) nola banatzen ziren ikus zezakeen. Blokeetako bakoitza baztertzaila zen.

Hori horrela, proba oso zaila zela ohartu zen eta, beraz, bi bloke baztertzailaetako bakoitzean lortutako zuzeneko puntuazioan gaindituzat emateko muga edo ezagutzen gutxieneko atalasea 20 puntutan ezartzea erabaki zuen.

Txostenak dioenez, “muga” ezarri da eta horren azpitik dagoen ezagutza-maila eskastzat jotzen da. Horrez gain aipatzen da, lan burtsak dezente irautea nahi denez, muga probako galdera guztietatik zuzen erantzundakoen erdiaren azpitik jarri ohi dela, kide kopuru nahikoak osatuta egon dadin, epe ertain eta luzera aurreikusitako elkartearen premiekin bat etorritz.

Hautagaien zuzeneko puntuazioetan oinarrituta eta bi bloke baztertzailaetako batean ere epaimahaiak zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortu ez zutenak aldera batera utzita, haiek 25 eta 50 puntu arteko eskalara egokituko ziren bukaerako puntuazioetara bideratu zituen. Horretarako, lortutako zuzeneko puntuazioan beste muga bat ezarri zen, 16,66 puntutan, eta, beraz, haiei 25 puntu zegozkien bukaerako puntuazioan eta kasuan kasuko bukaerako puntuazioak proportzionalki kalkulatu ziren aipatu eskalaren barruan.

Txostenean, oposizio faseko bukaerako emaitzei dagozkien bi eskalen arteko puntuak bihurtzeko formula islatzen da eta halaxe jaso dugu, osorik, ebazpen honetan:

“ $P2 = MI2 + [(P1 - MI1) \times R]$, izanik:

$P2$ = puntuazioa, oinarrietan aurreikusiriko eskalaren aldean (25-50 puntu)



M12 = oinarrietan aurreikusiriko puntuazio minimoa (25 puntu)

P1 = proban aurreikusiriko eskalaren aldean lorturiko zuzeneko puntuazioa (0-100 puntu)

MI1 = proban aurreikusiriko eskalaren aldean Epaimahaiak ezarritako puntuazio minimoa (16,66 puntu)

R = bi eskalen arteko arrazoiak. Oinarrietan aurreikusiriko eskalaren puntuazio maximo eta minimoaren aldea (50-25) proban aurreikusiriko eskalaren puntuazio maximo eta minimoaren alderen (100-16,66) artean zatitzearen ondoriozko zatidura”

Administrazioak honela dio bere azalpenei amaiera emanez: “ariketaren puntuazio berriak eragin berdina du azkeneko puntuazioaren emaitzaren gainean, ariketa horren benetako puntuazioak izango zukeen eragin berdina; izan ere, 83,34 zabalera-escala batean (minimoa 16,66, maximoa 100) len diferentzia ez da 25 zabalera-escala batean (minimoa 25, maximoa 50) dagoen diferentziaren berdina. Diferentzia, berriro diogu, proportzionaltasunean oinarritu behar da. Ez daiteke alegatu inola ere diferentzia absolutua, erlatiboa baizik. Matematikoki, ez dago beste irtenbiderik.”

Aipatu aurrekariei honako gogoeta hauek aplikatu behar zaizkie:

Gogoetak

1. Funtzio eta kargu publikoetara berdintasunez eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako hautaketa-mekanismoen bidez sartzeko eskubideak Konstituzioan du babesa, zehazki, 23.2 eta 103.3 artikuluetan.

Konstituzioko printzipioak edozein administrazio publikok garatzen duen hautapen eta hornikuntza prozesu orotan errespetatu eta bermatu behar dira, loturaren izaera eta iraupena aintzat hartu gabe. Halaxe egingo da lanpostuak edo eginkizunak bitarteko gisa edo aldi baterako betetzeko prozesuetan, ondorio horretarako pentsatu eta eratutako lan burtsa edo kontratazio zerrendan dagoen hautagaia izendatzen denean.



Horrela, adiera bakarra ematen dute funtzio publikoaren esparrua eratzen duten arauetako artikuluek. Kexa Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen langile beharrei erantzute aldera lan burtsa eratzekeko prozesuari buruzkoa denez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea aplikatu behar zaio zuzenean. 33.1 artikulua, bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako lan kontratupekoak hautatzeari buruzkoa, Konstituzioko aginduaren isla da, honakoa ezartzen baitu: eginkizun hori *“arauz ezartzen diren prozedurekin bat etorritik gauzatuko da eta publikitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei jaramon eginez”*, hori guztia era honetako hornikuntzetan ezarri ohi den arintasun baldintza baztertu gabe.

Apirilaren 12ko 7/2002 Legearen bidez onartu den Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuak zerbitzu harremana eskuratu eta galtzeari buruzko IV. tituluan aipatzen du biztanleek enplegu publikora Konstituzioko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin bat etorritik heltzeko eskubidea dutela.

Hain zuzen ere, printzipio horiei men egin beharra berariaz jasotzen da 2006ko maiatzaren 30eko Gobernu Kontseiluaren erabakian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoan (2006ko ekainaren 13ko EHAA); horren babesean onartu zen ebazpen hau eragin duen deialdia. Erabaki horretako 2. artikuluari jarraiki, publikitatea, berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta gardentasuna nahitaez errespetatu beharreko printzipioak dira burtsak osatzeko langileak hautatzerakoan. Zehazki dio merezimendu eta gaitasunaren irizpideak erabili behar direla hautagaiak burtsetan sartzeko eta horietan oinarrituta ezarri behar dela burtsetako ordena.

2. Ebazpen honen bidez agerian utzi nahi da, erakunde honen iritziz, laborategiko goi mailako teknikarien lan burtsa eratzerakoan ez direla errespetatu berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak.

Nagusiki, oposizioegileek ariketa teoriko-praktikoan lortutako puntuazioak deialdian aipatzen den 25 eta 50 puntu arteko eskalara egokitze aldera bihurtzeko arauak eta eragiketak urratu dira soil-soilik.



Hortaz, eztabaidatik kanpo geratzen dira, besteak beste, hautapen prozesuaren diseinua, burtsaren bolumena –alderdi hau erantzun beharreko premiekin eta, orobat, prozesuaren titularra den administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalarekin erlazionatuta baitago– eta burtsan sartzen diren hautagaien gaitasun teknikoa edo oposizioako puntuazioak egokitzeko erabili behar den eskala –gai hau hautapen prozesua arautzen duten oinarrietan jaso behar da–. Halaber, ez dirudi beharrezkoa denik esatea helburua ez dela epaimahaiaren jardunak zalantzan jartzea, horiek, zuhurtziarakotasun teknikoaz baliatzerakoan, deialdian emandako arauen esparruan sartzen badira eta oposizio fasea gainditzeko hautagaiak behar dituzten gutxieneko hogeita bost puntuei dagokien ezagutzamaila zehazteko baimena ematen badiete.

Hortaz, arreta esku artean dugun gaian jarrita, eta espedientea izapidetzerakoan ere esan den bezala, kalifikazio epaimahaiak ezarritako bihurketa-formulak berdintasunarekin zerikusirik ez zuten bukaerako emaitzak ematen zituen.

Zuzeneko puntuazioari jarraiki ordenatutako hautagaien zerrenda eta bihurketa egin ondoren lortutakoa alderatuz gero, guztientzat modu berean jarduten ez duten puntuazioen progresio baten eragina antzeman daiteke, puntuaziorik onenak lortu zituztenen kaltetan eta emaitza kaskarragoak lortu zituztenen mesedetan. Espedientean dauden datu zehatzen arabera, zerrenda horretan lehenek puntu asko galdu dituzte (zenbat eta handiagoa izan zuzeneko puntuazioa, orduan eta puntu gehiago galdu dituzte) eta bigarrenak, aldiz, puntu gehigarriak lortu dituzte (zenbat eta txikiagoa izan zuzeneko puntuazioa, orduan eta gehiago lortu dituzte). Ildo horretatik, proban puntuaziorik onena lortu zuen hautagaiak 23,87 puntu galdu ditu eta gainditu ahal izateko zuzeneko puntuaziorik txikiena duten hautagaiak –20 puntu– 6 puntu gehiago eskuratu dituzte.

Izan ere, bat gatoz administrazioarekin, bihurketa-formularen ondorioz ateratzen den lehentasun ordenak ez baitu zuzeneko puntuaziotik lortutakoa aldatzen; oro bat ados gaude proportzionaltasunaren inguruko bere arazoibidearekin. Hala ere, adostasun hori adierazten jarraitu ahal izateko, bere tesiaren oinarri den parametro zorrotzari eutsi beharko genioke; hau da, 16,66tik 100erako eskalan eta 25etik 50erakoan pertsona bakoitzak proban ezarritako gutxieneko ezagutzamaila zein ehunekotan gainditzen duen.

Diogun bezala, ez dirudi zuzeneko puntuazioak bukaerako puntuazio bihurtzeko arauak hautagaien ordena aldatzen duenik oposizio fasea bakarrik kontuan



hartzen badugu. Hala ere, berriz ere gogorarazi behar dugu, eskala zabalago batetik murriztuago batera igarotzean eta, ondorioz, oro har puntuazioak elkarrengana hurbiltzean, progresioa sortzen dela eta horrek, batetik, galera nabarmena dakarrela puntuaziorik handieneko zatietan eta, bestetik, igoera nabarmena txikienekoetan. Gure ustez, ordena hori aldatzea eragingo duten oinarriak antzeman daitezke.

Hain bistakoa den irudi honen atzean, hain zuzen ere, ikus daiteke erantzun zuzen batek ez duela balio bera izan oposiziogile guztientzat. Zuzeneko puntuazioak bukaerako puntuazio bihurtu ondoren zuzendaritzari helarazi zaizkion gutunetan, kalkulu erraz batek adierazten digu puntuaziorik handiena lortu zuen hautagaiaren azterketan erantzun zuzenari 0,6191 puntu eman zitzaizkiola eta puntuaziorik txikiena lortu zuen hautagaiaren azterketan, aldiz, 1,3347 puntu. Ondorio beraren beste alderdi bat baino ez da eta hautagaien ezagutzak eta prestakuntza berdintasun baldintzetan baloratu ez direla adierazten du.

Esan dugun bezala, nahiz eta ordena-aldaketa ez den prozesuaren beranduagoko fase batera arte antzeman, ukazina da formulak oposiziogileei emandako zuzeneko puntuazioen artean dauden benetako aldeak aldatzea dakarrela. Burtsa eratzeko irizpideak oposizio ariketa bat baloratzera mugatzen baditugu, horrek ez luke eraginik izango enplegua eskuratzeko aukeretan, deialdiak hautagai bakoitzak zerrendan duen lekuaren arabera egiten baitira. Aldiz, eta kasu honetan gertatzen den bezala, oposizio faseari merezimendu bidezko lehiaketa eta hizkuntza-eskakizunen balorazioa gehitzen bazaizkio, berez ariketa zuzentzearen ondorioz ez, baizik eta zuzenketa-formula erabiltzearen ondorioz sortu diren alde erlatibo horiek hautagaiek erakutsitako ezagutzekin eta merezimenduekin bat etorriko litzatekeen lehentasun ordena hausten dute. Hortxe kaltetzen dira burtsa osatzen duten langileen legezko interesak eta aukerak, zerrendan duten lekua –eta ez bakarrik beren puntuazioa– bihurteta- arau bat erabiltzearen arabera baitago.

Argi dezagun sortutako ondorioa argitaratutako administrazio egintzek prozesuan parte hartu duten zenbait pertsoneri dagokienez esleitzen dituzten puntuazioak hartuta. Lehenengo taulan hautagai bakoitzaren zuzeneko puntuazioa, merezimenduak eta hizkuntza-eskakizunak batuko dira; eta, bigarrenean, berriz, zuzeneko puntuazioaren ordez, bukaerako puntuazioa edo bihurtu ondorengo adieraziko da. Hona hemen emaitza:



| HAUTAGAIA | ZP | MEREZIMENDUAK | HE | GUZTIRA |
|-----------|-------|---------------|------|---------|
| A | 62,67 | 3,00 | 7,00 | 72,67 |
| B | 44,33 | 15,00 | 5,00 | 64,33 |
| C | 52,33 | 1,50 | | 53,83 |
| D | 24,00 | 15,00 | 5,00 | 44,00 |

| HAUTAGAIA | AP | MEREZIMENDUAK | HE | GUZTIRA |
|-----------|-------|---------------|------|---------|
| B | 33,30 | 15,00 | 5,00 | 53,30 |
| A | 38,80 | 3,00 | 7,00 | 48,80 |
| D | 27,20 | 15,00 | 5,00 | 47,20 |
| C | 35,70 | 1,50 | | 37,20 |

Lau hautagairen puntuazioa erreferentzi gisa hartzea nahikoa bada zerrendako lekuak aldatu egiten direla agerian uzteko, pentsa dezakegu ondorioa ugaritu egingo litzatekeela laginean oposizio fasea gainditu duten hautagai guztiak barneratuko bagenu.

Bestalde, administrazioaren arazoibidea, alegia, interesdunak hizkuntza-
eskakizunarengatik eta merezimenduengatik puntu gutxi jaso dituelako egin duela behera zerrendan, funtsik gabe geratzen da eskaini berri dugun laginketa egin ondoren; laginketa horretan, hautagaietako batzuek lortu dituzten behin betiko emaitzak batugai gisa zuzeneko puntuazioa hartu izan balitz lortu izango luketenarekin alderatzen da.

Horregatik guztiagatik, uste dugu erabilitako zuzenketa-formulak ez dituela berdintasunez tratatu hautagai guztiak eta horien artean merezimendu eta gaitasun printzipioetara egokitzen ez den lehentasun ordena ezarri duela.

3. Aurretik aipatutako uziari berriro helduz, ebazpen honen bidez adierazi nahi da beharrezkoa dela garbi uztea puntuazioak bihurtzeko formulak lan burtsa eratzeko prozesuaren bukaerako emaitza irauli duela eta sortu duen hautagaien ordena ez datorrela bat oposizio ariketaren benetako puntuaziotik atera izango litzatekeenarekin.

Badakigu, oinarriek hautapen prozesua nola diseinatzen duten ikusita, beharrezkoa dela zuzenketa-formula bat erabiltzea; horren bidez, ehun galderaz osatutako ariketari gehienez berrogeita hamar puntu emango zaizkio eta, bertan,



gutxienez hogeita bost lortu beharko dira. Horrek, prozedura zailtzen duen arren, ez du zuzenketa edo baliozkotasuna aurretik juzgatzen, betiere, erabiltzen den formulak ez badu diskriminaziorik eragiten hautagaien artean.

Hain zuzen ere, horixe antzeman dugu aztertutako hautapen prozesuaren bukaerako emaitzetan. Horregatik, uste dugu gure iritzia Auzitegi Gorenak hartutako jarrerak babesten duela; ondoren aipatuko ditugun epaietan, zuzenketa-formula batek errespetatu behar dituen baldintzak ezartzen ditu, emaitzak guztiz inpartzialki tratatzeko moduko tresna izatea berma dadin.

Justizia-administrazioiko laguntzaileen gorputzean sartzeko hautaprobaren deialdi baten testuinguruan, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak haren baitan garatutako jardunen aurka aurkeztu ziren errekurtsioen berri izan zuen eta, esku artean dugun kontu honi dagokionez, hainbat epai eman zituen 2005eko ekainaren 29an (RJ 2005\6535), 2005eko abenduaren 15ean eta 22an (RJ 2006\1277 eta RJ 2006\1341), 2006ko urtarrilaren 12an (RJ 2006\974), 2006ko ekainaren 21ean (RJ 2006\3193) eta 2006ko uztailaren 12 (RJ 2006\6003).

Horietako edozein baliagarria izango litzaiguke gure arrazoibidea argitzeko; hala ere, guk 2006ko ekainaren 21eko Epaiak aukeratu dugu. Zuzenbideko lehen oinarriak bi ariketaz osatuta zegoen deialdian kalifikazio epaimahaiak erabilitako zuzenketa-irizpideak biltzen ditu, honela:

“...Según la Base 9.1 de las que regían la convocatoria, el primero consistía en la contestación a un cuestionario de cien preguntas, cada una de las cuales iba seguida de cuatro respuestas, de las que solo una era correcta. Se puntuaba de 0 a 100 puntos, asignándose un punto por acierto, restándose 0,33 puntos por cada error y no puntuando las preguntas no contestadas. Encomendaba, igualmente, la Base 9.1 al Tribunal Calificador único decidir, a la vista del número y nivel de conocimientos de los aspirantes presentados, cual habría de ser la puntuación mínima para superar este ejercicio en cada ámbito territorial. (...).

Antes de la realización del primer ejercicio el Tribunal anuló dos preguntas, de manera que la puntuación máxima posible en el mismo quedó en 98 puntos. (...) No obstante, el Tribunal Calificador único, además de establecer en 78 la puntuación mínima necesaria para superar el primer ejercicio, resolvió aplicar una fórmula de transformación de la realmente obtenida en el mismo con el fin de que quedaran comprendidas en una escala que iba de



50 a 98 sustituyendo a la que iba de 78 a 98. Para ello consideró que 78 puntos equivalían a 50 y con arreglo a esa equivalencia convirtió todas las puntuaciones.”

Azaldutako gertakariak ikusita, Auzitegi Gorenak, puntuazioak bihurtzeko formula hau aztertzerakoan, honakoa adierazten du zuzenbideko laugarren oinarrian:

“Es claro que la corrección había de mantener a los opositores al finalizar el primer ejercicio con el mismo orden que les hubiera correspondido según las puntuaciones reales, pero no bastaba solo con eso. Además de lo anterior, era necesario que la nueva puntuación corregida del primer ejercicio tuviera sobre el resultado de la puntuación final la misma incidencia que habría tenido la puntuación real de ese ejercicio.

Sólo si se confirma la observancia de esta segunda exigencia podrá aceptarse que se ha cumplido la proporción que las bases de la convocatoria querían que existiera entre la calificación de cada ejercicio y el resultado final del proceso selectivo.

(...) La polémica formula correctora no cumple con esa última exigencia que acaba de apuntarse. Su incidencia en el resultado final de la oposición es diferente a la que habrían tenido las puntuaciones reales. Así: la puntuación mínima real de 78 se transforma en una puntuación corregida de 50, mientras que la puntuación real de 98 se convierte en 100; y lo que en una comparación global de ambos sistemas de puntuación se observa es que las puntuaciones reales más bajas están mucho más distantes de sus equivalentes corregidas que lo están las puntuaciones reales más elevadas.

Los datos parciales que figuran en el expediente así lo confirman.

Por tanto, tienen razón los recurrentes de casación en que esa formula correctora no fue igualitaria.”

Gainera, erabaki hori hartzerakoan, Auzitegi Gorenak azpimarratu zuen Herriaren Defendatzaileak egindako txostena zegoela eta, bertan, zuzenketa-formula horren aplikazioa gaitzesten dela. Txosten osoa eskuratu ahal izan dugu eta, bertan, honakoa adierazten da:

“En ningún lugar de la convocatoria se recoge tampoco el criterio que deberá emplearse para efectuar tal operación, entendiendo esta Institución que el sistema que finalmente eligió la Administración podría entenderse



arbitrario, toda vez que, existiendo realmente una diferencia de 20 puntos entre aquellos que acertaron 78 respuestas frente a los que acertaron 98, tal diferencia se convierte finalmente en 50 puntos. Para esta Institución parece desproporcionada la diferencia a la que finalmente se llegó.

Hubiera sido preferible ajustarse a las puntuaciones reales obtenidas sin someterlas a conversión alguna (ya que el tribunal carecía de norma de cobertura para ello...)

En el supuesto de que la Administración entendiera que de acuerdo con el apartado 9.1 estaba obligada a puntuar con 100 puntos a aquellos aspirantes que hubieran respondido las 98 preguntas de las que componían el primer ejercicio, lo que tenía que haber hecho es, de acuerdo con una sencilla regla de tres, conceder una puntuación de 79.6 a aquéllos que hubieran respondido 78 y en base a esta regla matemática, haber ido hallando las diferentes puntuaciones de los aspirantes.

Nos vemos en la obligación de reiterar que con cualquiera de estos dos criterios se habría respetado la diferencia real entre los opositores y no se habría introducido un elemento no contemplado en la convocatoria y que pudiera entenderse como discriminatorio para unos opositores (aquellos que habían obtenido notas más cercanas a 78) mientras favorecía a otros, por lo que a juicio de esta institución podría haberse producido una quiebra del principio de igualdad del artículo 14 de la Constitución española y del derecho a acceder en condiciones de igualdad en las funciones y cargos públicos, del artículo 23.2.”

Ikus daitekeen bezala, bai epaian adierazitako gertakarietan bai erakunde honek aztertu dituenetan ariketa bateko benetako puntuazioak azterketa gainditzeko ezarritako ezagutza-maila zehazteko balio duen puntuen eskalarekin bat datozen bukaerako puntuazio bihurtu dira, nola prozesua arautzen duten oinarrietako aurreikuspena betez hala kalifikazio epaimahaiaren hautazko irizpideari jarraiki.

Auzitegi Gorenean aurkaratutako egoeran, hautagaien lehentasun ordena bigarren ariketa egin zenean eraldatu zen, kasu honetan, lehiaketa-fasea eta hizkuntza-ezagutzen balorazioa egin zirenean. Edonola ere, azaldu zaigun arazoa aztertzeko funtsezkoa da onartzea, bi prozeduretan, ondorio bera antzematen dela; alegia, bihurteta egiteko erabilitako formulak, nahiz eta ezin izan dion eragin kasuan kasuko proba amaitzean oposizioegileek zuten ordenari, ez du ahalbidetu zuzendutako puntuazioak ariketaren benetako puntuazioak izango zukeen eragin bera izatea bukaerako puntuazioan. Hala, bada, eskala-aldaketaren



bidez lortu nahi zen ondorioaz gain, nahi ez zen beste bat ere eragin da eta horrek hautagaiak berdintzat tratatzea eragotzi du.

Erakunde honen iritziz eta azaldu diren arrazoiengatik, laborategiko goi mailako teknikarien lan burtsa sortzeko antolatu den hautapen prozesuan berdintasun printzipioa konprometitzen da, enplegu publikora heltzeko diseinatutako mekanismo ororen oinarri izan behar duena. Interesdunen eskubideak zaindu behar direnean, beharrezkoa da zuzenbidean bidezkoak diren neurri ikuskatzaileak hartzea eta, ahal den neurrian, lan burtsaren kudeaketari dagozkion jardunen hasierak nekez konpon litezkeen kalteak eragin ditzan saihestea.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

14/2007 GOMENDIOA, ekainaren 25ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari egina

Beharrezko neurriak har ditzala oposizio fasea puntuatu eta laborategiko goi mailako teknikarien lan burtsako hautagaien sailkapen ordena zehazte aldera kalifikazio epaimahaiak ezarritako arauak berrikusi ahal izateko, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen mesedetan.